



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

SAKRAMENTUAK ,JESUSEN AGERPENAREN ZEINU

3. SAIOA

GURASOAK PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis

Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburua

- Sakramentuak Jesus gure bizitzan agertzeko baliatzen den zeinu – keinu bezala ulertu

2. Helburu bereziak

- Sakramentua zer den ulertu
- "Zazpi sakramentuen" esanahiaz jabetu
- Ospatutako sakramentuen esperientzia pertsonala eguneratu



Ideia nagusiak

- Gizakiok sinboliko gara: Ezinbesteko ditugu hizkuntza eta sinboloak hitz egiteko, gauzak aditzera emateko.
- Sakramentuak Jesukristo Aitaren "sakramentu nagusiarekin" hartu-emanen jartzen gaituzten Elizaren ekintza dira. Aitak, horien bitartez, bere maitasuna (grazia) era berezian helarazten digu.




Ezinbesteko lagungarriak

- Eranskinen fotokopiak

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldez aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.

A. SESIÓN PARA MADRES Y PADRES EN LA PARROQUIA



Saiorako gida Laguntzailearentzat ...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1. urratsa
- 2. unea: Gaiaren garapena (40 minutu). 2-3 urratsak
- 3. unea: Bilketa eta laburpena (20 minutu). 4. urratsa
- 4. unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 5. Urratsa
- 5. unea: Familian bizitzeko. 6. urratsa.



Lehenengo unea. Agurra eta aurkezpena



1. urratsa. *Harrera egin eta saioa garatzeko giro egokia sortu ondoren, laguntzaileak saioa aurkeztuko die, "sakramentuen" inguruan jardungo dutela adieraziz. Zer adierazten dizue hitz horrek?...*

... Beharbada, urruneko zerbait, ezezaguna da, noizbait entzun dugun baina arrotz egiten zaiguna?

... ala, alderantziz, ezaguna, gertukoa, ohiko gauzeekin zerikusia duena ote da?



Bigarren unea: Gaiaren garapena



2. urratsa. Geure giza esperientziatik

Laguntzaileak zenbait txartel zabalduko du mahaian; txartel bakoitzak esaldi bat jasoko du. Partaideek banan-banan altxatu eta esaldia boz goraz irakur dezatela. Esaldi hauek edo antzekoak izan daitezke:

- Nire familian, ukiezina da maiatzaren 7an anai-arreba guztiok bazkaltzeko biltzea.
- Niretzat, igandez alabarekin San Mamesera joatea, mutiko nintzenez aitarekin joaten nintzen bezala, sakramentu baten antzekoa da.
- Leku hau berezia da. Hemen ezagutu genuen elkar senarrak eta biok eta oso gustuko dugu hona etortzea. Hemen, elkarrekin gaudenean, denbora ere geratu egiten dela ematen du... Zenbat gauza gogorarazten digun...!
- Hatzean daramadan eraztun honek sakramentu-kutsua, sakratua, du niretzat. Ezkontzako eraztuna da.
- Sei urte bete nituenetik daukat panpina hau. Erdi apurtuta dago, baina oso baliotsua da niretzat.
- Zintzilikari hau beti aldean daramat. Nire lagunik onenak oparitu zidan Madrilera bizitzera joan zenean eta esanahi berezia du.
- Irrati zahar bat dut etxean, zurezkoa, ez diot inori ukitzen uzten... amonarena zen. Beti gordeko dut. Sakratua da.
- Txikitan taldean jaso nuen eskaut lepoko hau sakratua da.

Taldean, elkarrizketan jardungo dugu:

- Bat zatoz honelako esaldiekin? Erabili dituzu noizbait?
- Zer esan nahi dugu horien bidez?
- Zuretzat, zer da gauza "sakratu" bat?
- Gauza bera -gauzakia, lekua, gertaera- sakratu da pertsona desberdinentzat?



Elkarrizketan jardunez, laguntzaileak azalpena osa dezake:

- Hau edo bestea, "sakratua" dela diogu, delako gertaera, gauzaki, leku, ekintza, pasarte hori... guretzat oso garrantzitsua, guztiz esanguratsua..., denean.
- ...berez objektiboa bada ere (antzinako irratia, kolore eta distirarik gabekoa...) neure subjektibotasunetik ikusten dut (garrantzitsua da niretzat, esanahi jakin bat du niretzat), neure begiez ikusten dut eta neuretzat da berezia, ez besteentzat. Irratiaren kasuan, irratia baino zerbait gehiago da.
- Neure subjektibotasunetik begiratzen diot, neure esperientzia bati, neure bizipen sendo bati, niregan, batik bat maila afektibo eta emozionalean, arrasto handia utzi duen zerbaiti lotuta dagoelako (amonarekiko hartu-emana: haurtzaroan berarekin igaro dudan denbora, bere kontakizunak, bere irakaspenak, berak eraman ninduen lekuak, berak entzuten zituen irratsaioak, bere irribarrea...).
- Gauzaki hori ikusteak, ekintza hori egiteak, topaketa horretan parte hartzeak... beste garai batera narama, une honetakoa ez den errealitatera, ukitzen, ikusten... ez dudan errealitatera. Beste errealitate bat gogorarazten dit: gurasoen maitasuna, bikotearekiko harremana, haurtzaroko oroitzapenak...
- Ikusten dugun bakoitzean, egiten dugun bakoitzean... eguneratu egiten den zerbait da, ez oroitzapen hutsa; nolabait esatearren, gogoratzen dugun hura agertzera ematen digu: aitarekin futbolera joatea; amona eta biok irratia entzuten magdalenak egiten genituen bitartean, lagun minarekin igarotako une ederrak...
- Sinbolo bihurtzen dira, gauzaki, ekintza edo dena delakotik harago doan errealitatera dakarkigulako orain aldira. Irratia ikustean, amona ondoan dudala sentitzen dut; anai-arreba guztiok bazkaltzeko elkartzen garenean, gure artean gurasoen maitasuna dagoela sentitzen dugu... Era sinbolikoan, gogora ekartzen didan pertsonarekin bat egiten dut. Une batez, delako pertsona hori hemen, aurrez aurre dago, benetan.

Atal honi amaiera emateko, laguntzaileak galdera hauek egingo ditu:

- Gogoratzen dut niretzat “sakratua”, “sakramentala” den gauza, leku, ekintzarik...? Taldean batera jarri.
- Zein garrantzi dute sinboloek eta hizkuntza sinbolikoak gure bizitzan? Bizi gaitzke eta hitz egin dezakegu sinbolorik gabe? Nola adieraziko genuke, esate baterako, adiskideari, seme-alabei, bikotekideari... diogun maitasuna, ezingo bagenio besarkadarik edo musurik eman?



3. urratsa. Sakramentuak kristau esperientzian

Ikusi berri dugu sinboloak (sakramentuak) ez daudela gure bizitzatik kanpo edo urrun; sinboloek geure giza esperientzian txertaturik daude. Eman dezagun beste urrats bat: zer da sakramentua kristau esperientzian?

Laguntzaileak azalpenak emango ditu:

- Giza esperientziaz esan dugunarekin parekotasunean azal dezakegu kristau sakramentua zer den: ikusi eta ukitzerik ez dugun baina senti dezakegun errealitatea, hau da, Jainkoaren maitasuna, gogora ekartzen eta agertzera ematen digun errealitatea (ikusgaia, ukigaia, materiala).
- Kristau sakramentua, gertaera da eta bertan, “hiz egin” nahi digun Jainkoa eta jasotzen duen pertsona elkartu egiten dira.
- Jainkoaren agerpen horretaz jabetzeko, ezinbestekoa da fedea, ezinbestekoa da aurretik Berarekin bat egin izanaren esperientzia izatea. Fedeari esker, hau da, seme eta alaba bezala maite gaituen Jainko Aita badela sinesteari esker, antzeman, sumatu, nabaritu, aurkitu dezakegu Jainkoa sakramentuen ospakizunean.
- Kristauontzat, Jesus da Jainkoaren sakramentu nagusia. Jesusen bitartez (bere hitzaren, egitekoen, bizitzaren... bitartez) Jainkoa senti dezakegu. Jesusengan argitasun handiagoz antzeman dezakegu Jainkoaren agerpena.



- Eliza Jesukristoren sakramentu da: bertan Kristo agertzen zaigu. Jesusen misioari jarraipena ematea da Elizaren eginkizuna. Elizaren bitartek Jesus ezagutu, bere atzetik jarraitu eta berarekin bat egin dezakegu.
- Elizan, bat eginik ospatzen dugu gure fedea, eta Jainkoa gure artean agertzen da eta Sakramentuen bidez gure alde egiten du.
- Hitz errazez baliatuz, Sakramentuak zeinu nabariak – ezagutzeko giza gaitasuna ulergarri diren hitz eta ekintzak – dira eta horien bitartez Jesusenganako fedea ospatzen dugu eta, Espiritu Santuaren eraginez, dohainak eta grazia jasotzen ditugu Harengandik gure kristau bizitzan irauteko eta aurrera egiteko.

Kristau Sarbideko Sakramentuak

- Bataioa
- Lehen Eukaristia
- Sendotza

Sendabide-sakramentuak

- Adiskidetzea
- Gaixoen oliadura

Sacramentos de Servicio a la comunidad

- Ezkontza
- Apaiz-ordena

Sakramentuetan sakondu egingo dugu. Partaideak 7 taldetan^[1] banatuko ditugu eta bakoitzak bati helduko dio (ondorengo koadroko ilaretako batean. 1. eranskina).

Talde bakoitzak egokitu zaion sakramentuaren inguruan koadroan agertzen dena irakurri eta horren inguruan elkarrizketan jardungo du: zein erreferentzia duen, nola "lotzen" zaion giza esperientziari eta kristau bizitzari eta erreferentzia biblikoa. Laguntzaileak adi jarraituko du taldeen jarduna eta beren zalantzak argitu eta galderak erantzungo ditu.

[1] 7 talde (edo bikote) osatzeko adina partaide ez bada, osa daiten talde txiki bakoitzak sakramentu bat baino gehiago aztertuko du.

¹
Minutu batzuen buruan, taldeek bakoitzari egokitu zaion sakramentuaren adiera eta esanahia azalduko diete gainerakoei.



3.unea: Bilketa eta laburpena

4. urratsa. Sakramentuen esperientzia

Azken atal honetan, sakramentuak ospatzearen inguruan dugun esperientzia batera jartzeko eskatuko die. Garrantzitsua da ezagutzea eta ulertzea, baina fedea, esperientzia da eta, horregatik, bizitzea da benetan garrantzitsua. Nola bizi dugu sakramentuen ospakizuna?

Elkarrizketan jardungo dugu taldean, ondorengo galderak aintzat hartuta (taldea handia bada, bizpahiru talde txikitik bana daiteke, partaide guztiek esku-hartu eta beren esperientzia azal dezaten):



- Zein esperientzia izan duzu sakramentuen bat ospatzean? Zein sakramentu ospatu duzu? Esanguratsua da zure bizitzan?
- Orain irakurri edo entzun duguna, lagungarri da bizi eta esperientziatu duzuna hobeto ulertzeko? Zertan? Zergatik?
- Zer ematen dio sakramentuen ospakizunak gure kristau bizitzari?

◆.....

¹7 talde (edo bikote) osatzeko adina partaide ez bada, osa daiten talde txiki bakoitzak sakramentu bat baino gehiago aztertuko du.

4.unea: Otoitza eta barneratzea

Amaitzeko, taldean otoitz egingo dugu. Ondorengo otoitza egingo dugu elkarrekin, Jainkoaren seme eta alaba bezala bizi nahi dugula adieraziz:

Señor, sabemos que todos
somos hijos tuyos y nos quieres a todos por igual.
Ayúdanos a hacer el bien allí donde estemos,
para que te sientas satisfecho de nosotros.

Jauna, badakigu danok
zure seme-alaba garena,
eta dan-danok maite gaituzuna.
Gagozan leku guztietan on egin dagigula,
gutaz ere harro egon gaitezan.

Eta bideo honetaz baliatuz, Jainkoa sakramentuen bidez gure bizitzan agertzen dela gogoratuko dugu eta horregatik esker ona adierazi: "Gracias quiero darte".



**Ikusteko,
klik egin irudian**

5.unea: Familian bizitzeko



6. urratsa. Saioa amaitu aurretik, familian sakramentuen esperientzian sakontzeko bi ekintza proposatuko ditugu.

- Familiako kide bakoitzak beretzat balio sinbolikoa (sakramental, saioaren hasieran erabilitako adieran) duen zerbaiten (gauzakia, lekua, ekintza, gertaera...) pentsatuko du, gainerako senideei azaldu eta zergatik aukeratu duen esango du: nor gogorarazten dion, gauza edo ekintza hori zergatik den hain garrantzitsu beretzat, zer esan nahi duen...
- Sakramentuen ospakizunaren esperientzia elkarrekin bizi berriz ere. Etxean ditugun argazkiak, bideoak edo bestelako oroitzapenak hartu, familian ospatutako sakramentuak (ezkontza, bataioak, lehenengo jaunartzea, sendotza...) gogoratu eta horien inguruan hitz egin: noiz ospatu ziren, nola, nor egon zen ospakizunean, zein garrantzi izan zuen bakoitzarentzat, zein oroitzapen gordetzen den...



I. Eranskina. 7 SAKRAMENTUAK

Sakramentuak	Bizitza orokorrean eta kristau bizitza	Erreferentzia biblikoak
Bataioa	Pertsonak, bizitzan, familia eta beste hainbat erakunde eta norbanako ezinbesteko dituen bezala, bataiatuari harrera egiten zaio kristau elkartean eta, Espirituarengan, Kristoren bizitza berrian txertatzen da.	"Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada" (Jn 3, 5)
Sendotza	Haurra, sarbideko ibilbidea egin eta gizarte helduan txertatzen den bezala, bataiatua sendotu egiten da bere fedean, bizitzan Kristoren lekukotasuna emateko.	"Egiaren Espiritua etor-tzean, egia betearaino gidatuko zaituzte" (Jn 16, 13)
Eukaristia	Gizakiak elikatzea eta beste batzuekin batera bizitzea, bizipenak batea jartzea, bizitza ospatzea ezinbesteko duen bezala, kristaua Kristoz elikatzen da, beste batzuekin batera bizi da, Kristorekin eta besteekin bat egiten du Elizan eta munduan Jainkoaren Erreinua eraikitzen jarraitzeko.	"Ogi honetatik jaten duenak betiko bizia izango du" (Jn 6, 51)
Adiskidetzea	Bizitzan bezala, norbere buruarekin edo besteekin apurketa gertatzen bada, ezinbestekoa da adiskidetzea; barkamenerako beti prest den Jainkoaren maitasunak eta errukiak altxatzera eta bizitzako egitaspora bihurtzera bultzatzen gaitu, geure buruarekin, besteekin eta Jainkoarekin adiskidetzuz.	"Gaur iritsi da salbamena etxe honetara" (Lk 19, 9)
Gaixoen oliadura	Bizitza mehatxatuta izan eta gizakiak bizia galtzar delako sumatzen duenean, beretarren laguntza eskatzen du. Era berean, oliadura zeinu garrantzitsua da, Jainkoaren barkamena, Harengan itxaropena izatea eta une zaileri aurre egiteko sendotasuna ematen baitu.	"Fedez egindako otoitzak osasuna emango dio gaixoari eta jaikiaraziko du Jaunak, eta barkatu egingo dio, bekatuak egin badu" (Sant 5, 15)
Ezkontza	Senar-emazteen elkarrenganako maitasun emankorra Kristok gizadiari dion maitasunaren sakramentu bihurtzen da.	"Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, Kristok bere Eliza maitatu zuen bezala" (Ef 5, 25)
Apaiz-ordena	Elkartearen zerbitzu iraunkorrerako ordenatutako bataiatua bere Elizaren buru den Kristoren sakramentu da.	"Elizaren zerbitzari bihurtu naiz ni, Jainkoak bere mezua zuei oso-oso eramateko eginkizuna eman baitit" (Kol 1, 25)